**Espediente: OT-015/11-PTP**

MUNGIAKO EREMU FUNTZIONALA

Mungiako Lurralde Plan Partzialaren behin betiko onespenaren aurreko dokumentua.

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETA BATZORDEAREN IDAZKARIAK

**ZIURTATZEN DUT:** Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketaren Batzordeak, maiatzaren 21ean, 2/2014 bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuten, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

**I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:**

Mungiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialari buruzko txostena egitea, horrek hasierako onespena jaso baino lehen, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetara egokitzeari edo Lurralde planeamenduarekin bateragarria izateari dagokionez, Euskal Herriko Lurraldearen Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 13.8 artikuluan xedatutakoaren arabera. Honela balioetsi da:

I.- INGURUNE FISIKOA. ANTOLAMENDU KATEGORIAK ETA ERABILEREN ARAUBIDEA.

**I.a.-** Planaren hasierako dokumentuko antolamendu kategoriei emandako aldeko irizpena mantentzen da, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean zehaztutakoekin bat baitatoz, honako zehaztasun hau barne:

Izenak homogeneizatzeko gutxieneko irizpide batetik abiatuta, "Butron ibaiaren ibarreko Ibaien Sistema" lurzoru urbanizaezinaren kategoria berriak LAGen kategoriak errespetatu beharko lituzke; beraz, honako izen hau proposatzen da: "Lurgaineko Uren Babesa-Butron ibaiaren Ibarreko Ibaien Sistema".

**Expediente: OT-015/11-PTP**

ÁREA FUNCIONAL DE MUNGIA

Documento previo a la aprobación definitiva del PTP de Mungia.

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

CERTIFICO: que en la Sesión 2/2014 del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada el día 21 de mayo, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguiente acuerdo:

**I.- En materia de Ordenación del Territorio:**

Informar el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Mungia, con carácter previo a su aprobación definitiva, respecto a su adecuación a las Directrices de Ordenación Territorial o su compatibilidad con el Planeamiento Territorial de acuerdo con lo señalado en el artículo 13.8 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco, en los siguientes términos:

I.- MEDIO FÍSICO. CATEGORÍAS DE ORDENACIÓN Y RÉGIMEN DE USOS.

**I.a.-** Se mantiene la valoración favorable de las Categorías de Ordenación establecidas en el Plan que se hizo al documento inicial, en cuanto que son acordes con las señaladas en las Directrices de Ordenación Territorial y PTS Agroforestal con la siguiente matización:

La nueva categoría de Suelo No Urbanizable “Sistema Fluvial de la Vega del Butron”, partiendo de un mínimo criterio de homogeneización de denominaciones, debiera respetar las categorías de las DOT para lo que se propone que la denominación de la misma sea la de “Protección de Aguas Superficiales-Sistema Fluvial de la Vega del río Butrón”.

**I.b.-** Era berean, lurzoru urbanizaezinaren kategorietarako bizitegi-erabileraren araubidearen aldeko irizpena mantentzea, bat baitatoz LAGen Ingurune Fisikoaren erabileraren matrizearekin. Gainera, aldeko irizpena ematen zaio aurreko txostenean egindako zehaztapena bete izanari, baratze- edo abeltzaintza-ustiapenari lotutako bizitegi-erabilera baimentzen den alde ezberdinetako araudian jasotzeari dagokionez. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 31. artikulua bete behar dela adieraziko da espresuki, bizitegi-erabilera horretara bideratutako oin berriko eraikuntza-lizentziak emateari lotuta.

**I.b.-** Mantener igualmente la valoración favorable al régimen de los usos residenciales definidos para las diferentes categorías del suelo No Urbanizable los cuales resultan acordes con las determinaciones establecidas en la Matriz de Usos del Medio Físico de las DOT; así como valorar favorablemente el cumplimiento de la consideración efectuada en el informe anterior en lo que respecta a plasmar en la normativa de las diferentes zonas en las que se permite el uso de vivienda vinculada a explotación económica hortícola o ganadera, la necesidad dar cumplimiento, al artículo 31 de la Ley del Suelo, 2/2006, en relación con la concesión de licencias de edificación de nueva planta destinada a dicho uso residencial.

II.- LANDA-GUNEAK

Mungiako eremu funtzionaleko landa-guneen antolamenduari aldeko irizpena ematea, hasierako erreferentziatzat hartuko baita landa-guneen inbentarioa aztertzeko. Hori Bizkaiko Foru Aldundiak onartu beharko du behin betiko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 29.7 artikuluak xedatutakoaren arabera. Gainera, bete egiten ditu batzordearen txostenean, hasiera batean onetsitako dokumentuari ezarritako baldintzak.

II.- NÚCLEOS RURALES

Valorar favorablemente la Ordenación de los Núcleos Rurales del Área Funcional de Mungia, en tanto que, como base de partida, se tendrá como referencia para su consideración el inventario de núcleos rurales que deberá aprobar de forma definitiva la Diputación Foral de Bizkaia según lo señalado en el artículo 29.7 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y en cuanto que da cumplimiento de las condiciones que se establecían en el informe de la Comisión al documento inicialmente aprobado.

III.- LURRALDE-EREDUA. BIZITOKIETARAKO ETA EKONOMIA-JARDUERETARAKO KOKALEKUAK.

III.a. Bizitokietarako Kokalekuen Lurralde-eredua

Behin betiko onartzeko dokumentu honek jasotako Bizitokietarako Kokalekuen Lurralde-ereduari aldeko irizpena ematea, hasierako dokumentuari aldeko irizpena ematea bideratu zuten zehaztapenak mantendu baitira, eta bete baita hasierako dokumentuari egindako zehaztapena; hau da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak hirigintza-eraikigarritasunaren mugei buruz 77. artikuluan zehaztutakoa jasotzen da eremu guztietan.

III.b. Bizitegi-kopurua.

Dokumentuan jasotako proposamenari al-

III.- MODELO TERRITORIAL. SISTEMA DE ASENTAMIENTOS RESIDENCIALES Y DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS.

III.a. Modelo Territorial de los Asentamientos Residenciales

Valorar favorablemente el Modelo Territorial de los asentamientos residenciales presentado por el presente documento para su aprobación definitiva en base al mantenimiento de las determinaciones que propiciaron la valoración favorable al documento inicial así como al cumplimiento de la consideración efectuada en el anterior informe respecto a recoger la necesidad dar cumplimiento, en cada ámbito a lo señalado en el artículo 77 de la vigente ley del Suelo 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, referente a los límites a la edificabilidad urbanística.

III.b. Cuantificación residencial

Valorar favorablemente la propuesta efectuada

deko irizpena ematea. Ildo horretatik, aipatu beharra dago, berrazterketaren ondorioz, idazten ari den Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko dokumentuaren "Garapen Jasangarriaren Estrategiak" kapituluaren 2. puntuaren 8. atalean ondoko hau jasotzen dela: "*LPPa aldaketa honetara egokitu arte, udaleko planeamendua berrikusteko dokumentuek aldaketa honetatik ondorioztatzen diren balio maximoen artetik txikiena hartuko dute bizitegi-ahalmen maximo gisa, azken kasu horretan lurralde-ereduaren zuzenketa (LEZ) kontuan hartu gabe*".

en el documento. Al respecto señalar que el apartado 8 del punto 2 del capítulo "Estrategias para un Desarrollo Sostenible" del documento de Modificación de las Directrices de Ordenación Territorial como consecuencia de su reestudio, (documento en redacción), señala que "hasta tanto se produzca la adaptación del PTP a la presente Modificación, los documentos de revisión del planeamiento municipal adoptarán como capacidad residencial máxima, el menor de los valores máximos resultantes tanto del PTP vigente como de la presente Modificación, sin la consideración del CMT (Corrección del Modelo Territorial)".

III.c. Bizitegietarako Lurzorua. Babes Publikoko Etxebizitzetarako Lurzoruaren Erreserba.

Espedientea Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailera bidali da, horrek txostena egin dezan.

III.c. Suelo Residencial. Reserva de Suelo para Viviendas de Protección Pública.

El expediente se da traslado al Departamento de Empleo y Políticas Sociales para la emisión de informe.

III.d. Jarduera Ekonomikoetarako Lurralde-eredua eta Lurzoruaren Kuantifikazioa.

Behin betiko onartzeko dokumentu honek jasotako Jarduera ekonomikoetarako lurralde-ereduari eta lurzoruaren kuantifikazioari aldeko irizpena ematea, hasierako dokumentuari aldeko irizpena ematea bideratu zuten zehaztapenak mantendu baitira, eta bete baita hasierako dokumentuari egindako zehaztapena; hau da, 40 hektareara murriztu da jarduera ekonomikoetarako ekimen berria.

III.d. Modelo Territorial y Cuantificación de Suelo para Actividades Económicas.

Valorar favorablemente el Modelo Territorial y la cuantificación de suelo para Actividades Económicas presentado por el presente documento para su aprobación definitiva en base al mantenimiento de las determinaciones que propiciaron la valoración favorable al documento inicial y en base al cumplimiento de la consideración efectuada en el anterior informe de reducir a 40 Has la nueva iniciativa propuesta para Actividades Económicas.

IV.- GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO ETA ZERBITZUEN AZPIEGITURAK, ETA ZORTASUN AERONAUTIKOAK ETA AKUSTIKOAK

Espedienteari ezin zaio eragozpenik jarri, azpiegiturei buruz dokumentuan adierazten diren estrategiei dagokienez. Dagokion sektoreko administrazioek egingo duten txostenak balioetsi beharko du arlo hori.

IV.- INFRAESTRUCTURAS DE TRANSPORTES y COMUNICACIONES, SERVICIOS y SERVIDUMBRES AERONÁUTICAS Y ACÚSTICAS.

No cabe poner objeción al expediente en relación con las estrategias que se señalan en el documento en lo relativo a Infraestructuras. Se remite la valoración en esta materia al informe que realicen las Administraciones Sectoriales correspondientes.

V.- AISIALDIRAKO ETA EKIPAMENDURAKO NATURAGUNEAK

Ezin zaio eragozpenik jarri espedientean proposatutako antolamendu-ereduari, aisialdirako eta ekipamendurako naturaguneei buruz dokumentuan adierazten diren estrategiei dagokienez. Beraz, arlo horri buruzko txostena eragindako sektoreko sailek egin beharko dute.

V.- AREAS NATURALES DE ESPARCIMIENTOS Y EQUIPAMIENTOS

No cabe poner objeción al Modelo de Ordenación propuesto por el expediente en relación con las estrategias que se señalan en el documento en lo relativo a Áreas Naturales de Esparcimiento y Equipamientos, remitiéndose la valoración en esta materia al informe que realicen los Departamentos Sectoriales afectados.

**II.- Abiazio zibilaren arloan:**
Abiazio zibilaren arloan, kontuan hartu behar dira 2013ko martxoaren 12an Aireportuen eta Aireko Nabigazioaren Zuzendariordetza Nagusiak emandako txosteneko ohar lotesleak.

**III.- Bide Azpiegituren arloan:**
Bide Azpiegituren arloan, kontuan hartu behar dira 2014ko maiatzaren 15ean Bizkaiko Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiak emandako txosteneko ohar lotesleak.

**IV.** Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari ondokoek egindako txostenak bidaltzea: Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza (I. eranskina), Aireko Nabigazioaren Zuzendariordetza Nagusia (II. eranskina), Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusia (III. eranskina), eta URA-Uraren Euskal Agentzia (IV. eranskina), Bizkaiko Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusia (V. eranskina), Garraio Azpiegituren Zuzendaritza (VI. eranskina) eta, ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostena emateko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak 2014ko apirilaren 24an emandako Ebazpena (VII. eranskina). Ziurtagiri horiek erantsita doaz."

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2014ko maiatzaren 21ean.

**II.- En materia de Aviación Civil:**
En materia de Aviación Civil, es preciso tener en cuenta las observaciones de carácter vinculante contenidas en el informe de la Subdirección General de Aeropuertos y Navegación Aérea emitido el 12 de marzo de 2013.

**III.- En materia de infraestructuras viarias:**
En materia de infraestructuras viarias es preciso tener en cuenta las observaciones de carácter vinculante contenidas en el informe de la Dirección General de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Bizkaia emitido el 15 de mayo de 2014.

**IV.** Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por la Dirección de Medio Natural Planificación Ambiental (Anexo I), por la Subdirección General de Aeropuertos y Navegación Aérea (Anexo II), por la Dirección General de Sostenibilidad de la Costa y del Mar (Anexo III), por URA-Agencia Vasca del Agua (Anexo IV), por la Dirección de General de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Bizkaia (Anexo V), por la Dirección General de Infraestructuras del Transporte (Anexo VI) y Resolución de 24 de abril de 2014, de la Dirección Ambiental, por la que se formula Informe Definitivo de Impacto Ambiental (Anexo VII), que se acompañan a la presente certificación."

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 21 de mayo de 2014.

SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETA BATZORDEAREN IDAZKARIA

Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordea · PLENOA ·

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga